

Liburuak

KRITIKA

Labirintoaren orduak

Amaia Iturbide. Erein, 2008. 129 orrialde.
14 euro.

Helduen literatura

Igor Estankona



Nondik da irteera?

LABIRINTOAREN ORDUAK definitzeko zaila den liburua da, aberatsa eta askotarikoa. Ez alferrik, 2003 eta 2007. urteen artean bildutako uzta oparoaren zati bat dakarkigu autoreak, eta igaritzen da, noski, ale batzuk udaberrikoak direla, beste batzuk udazken tristeago batekoak.

Tonu eta gaien aldaketak bakarrik ez, zatirik zati teknikaren eta poesia egiteko moduaren aldaketa nabarmenak ere badaude. Batzutan eite tradizionala darabil –errepikapenak, hizkera laua eta sakona, berba pisutsuak– eta beste batzutan jolasa eta esperimentazioa –lerro hautsiak, enumerazio zoroak, hizkuntza apur bat behartzeko gogoak–. Hermetismotik arintasunera momentu batean pasarazten zaitu.

Baina batez ere sinboloa, hitzak ostean daukan irudia baliatzen du Amaia Iturbidek. Liburuko labirintoak sinboloz eta keinuz beteriko igarobideak dira, beste hitz batzuen gainean pozaren edo tristuraren esanahia jartzeko ahalegina egiten baitu behin eta berrito: pinturarekin emozioa lortzen duenak legez, ezer ez diren hitzekin nahaste interesgarriak lortzen ditu. Horregatik poema bakoitza ondo lantzen du, arlo semantiko bakar batean mugitzen ahalegintzen da, eta hitz itxuraz suabeekin ideia indartsuak adierazteko gaitasuna dauka. Poesia sinbolistarekin badauka kideasunik, beraz, Iturbideren poesiak. Ideia forma finekin jantzen du beti, metafisikara egiten du sarri, eta errima, hotsa, erritmoa... jagon eta lantzen ditu. Emozioen poesia da, poesia kontzientea, bilbotarrak egiten duena. Samurra, arean gogorra eta erlijiozkoa ere bai noiz-behinka, hitzaren esanahi intimoenean.

Bertso errimatutik sasi-prosaraino, urjauzirik urjauzi, jolasen ariko bagina legez azaltzen dizkigu poetak bere kezka eta pozak. Eta horrek ez dio, hori ere esan egin behar da, liburu anitz honi bat ere batasunik kentzen. Joko tipografikoak egiten ditu ia-ia lerroen luzerarekin, hitz-zerrendekin eta baita collage arraroekin ere –berea nahastuz han-hemenka irakurtzen dituen esaldiekin, airean dauden ideiekin–, baina poemak gutxitan galzten du musikaltasuna, egitura sendoa eta leuntasuna. Eta hori meritua da hain labirintikoa den eremuan, haikutik digresio luzera erraz pasatzen den liburu honetan. Eta sinpletasunean unibertsal iritsi gura duen lan guztietan bezala, nahikoa da batzutan poema bat, irakurketa osoak merezi izan duela jakiteko: “Zauririk mingarriena:/ egiaren gezurra.// Zauri hau jabaltzeko/ ez edan ardorik mikatzena,/ baizik-eta ardo eztiari darizkion/ garratz puntu bateko zenbait ur xorta”.

Aroaz berba herriaren arimara iristeko

Eguraldia eta kultura euskaldunen artean. Aroaren berbarokak. Hala du izenburu Kepa Diegezek prestatu eta Gaiak argitaletxeak kaleratutako lanak. Eguraldi kontuen zale zaretenok honezkero ezagutuko duzue Kepa Diegezen *EtnoMet* bloga. Gune horretan bat egiten dute antropologiak, etnologiak eta hizkuntzalaritzak. Diegezek eguraldiari buruz idatzitakoek hainbat inter-

nauten erantzun eta iruzkin izaten dituzte. Diegezen hitzetan, euskaldunok aroari buruz dugun hitz eta esapide sorta altxorra da eta galterik ez bada nahi jaso egin behar da. Bestalde, altxor horri esker herriaren historia bera ere idatz daitekeela dio. Hala, blogeko mamia bildu du liburuan eta haizeez, hodeiez, izarrez, izotz eta elurrez mintzo da. **I**



Eguraldia eta kultura euskaldunen artean
Kepa Diege.
Gaiak.
164 orrialde.
19 euro.

Akitania patinetan

Euskal Herria aldizkariaren azken zenbakia, abendua-urtarrilekoa, kalean da. Badu artikulu bitxia. Ainhoa Abendibar eta Unai Zuazua bikotearen eta bi alaben abentura kontatu du. Gurasoek patinetan bidaiaitzeko gogoak zuten, baina bi hurrekin nola bidaiaitu kezka zuten. Zalantzak zalantza Amaiur eta Malen bi eta lau urteko txikiak hartu eta Akitaniara abiatu ziren. Abentura azaldu eta bide batez pistak eskaini dituzte gonbitea eginez.

Bardeetako argazki bikainak ere badaude zenbaki honetan, nondik eta globotik ateratakoak. Begi gozagarri gehiagorako sagardoa egiteko prozesua azaltzen duen marrazki sorta eta artikulua dago irakurgai. Gesaltza Añanarako gonbitea ere luzatu digu *Euskal Herria* aldizkariak. **I**



Euskal Herria, 37. zenb.
Sua Edizioak.
116 orrialde.
5,45 euro.